

## SARRERA

Oso garai garrantzitsua bizi dugu eta Lurra kontserbatzeko erronka daukagu. Munduko herrialde eta kultura guztiek familia bakar eta handi bat osatzen dugu; Horregatik denok batu egin behar dugu: natura errespetatzeko, giza eskubideak betetzeko eta bake eta justizian elkarrekin bizitzeko. Gu, guretzat eta jaioko diren pertsonentzat, bizitzaren erantzuleak gara.

Lurra, gure etxea. Izugarritzko unibertso baten barne gaude. Bertan, gure planeta bizitzaz beterik dago, landare, animalia eta herrialde aniztasun aberats batekin. Gu gizakiok, lur, ur eta airearen menpe gaude eta Lurrean bizitza babesteko sahietsenezinako eginbeharra daukagu.

Munduko egoera. Zoritxarrez, gaur egun ditugun ekoizpen eta kontsumo moduek sarritan ingurumena suntsitzen dute, natur baliabideak (ura, airea, zorua, ...) agortzen dituzte eta animalia zein landareen espezie asko desagertarazten dituzte. Munduko biztanlegoa orain arte ez bezala hazten da, baina aldi berean gerra, gose, miseria, ezjakitea, gaixotasunak, bidegabekeriak, ... guztiegatik bizitza etengabe suntsitzen da. Egia da zailtasun izugarri guzti hauek, nahi badugu, gaitzituak izan daitezkeela.

Zer egin behar dugu? Hautaketa gurea da: Lurra zaintzeko eta gure artean laguntzeko batu egingo gara edo bizitza ezerezatuz suntsituko gara. Oso aldaketa garrantzitsua beharrezkoa da: denok bizitzeko beharrezkoa duguna eduki behar dugu. Hau gaur posible da, lortzeko behar diren ezagutzak eta makinak ditugulako. Horrela, bizitza osoa bere neurrian baloratuko den mundu gizatiarrago eta berdintsuago bat iraitztea premiazkoa da. Gogoratu dezagun dena erlazioz gertatzen dagoela: ingurumena, baliabide ekonomikoak, elkarbizitza moduak, ideia izpiritualak, ... Nahi badugu, une honetatik, denontzat mundu hobeto eta gizatiarrago bat eraiki dezakegu.

Denok erantzuleak gara. Gure mundua aldatzeko, planeta osoaren erantzuleak izatea beharrezkoa da, bizi garen toki txiki eta zehatzarena batez ere, aldi berean munduko eta gure herrialdeko hiritarrak bait gara. Giza familiaren eta gure planetan bizi diren izaki bizidun ororen oraingo eta etorkizuneko ongizatea zainduko dugu denok. Ondorioz, bizitza miretsi behar dugu eta izatea eskertu. Zertarako bizi garen eta ondo bizitzeko zer egin behar den jakin behar da. Ondorioz, gure inguruko beste pertsonen gure idealak helerazi behar diegu. Horrela, gizakien talde guztiek, esperantzaz eta alaitasunez, bizitzako baloreak partekatuko dituzte.

## IZAKI BIZIDUNEN ZAINKETA ETA ERRESPETUA

1. Lurra eta bertan bizi diren izaki guztiak errespetatu itzazu: pertsonak, animaliak eta landareak.  
Izaki bizidun guztiak, bata bestearen menpe daude.  
Edozein bizitzak balorea dauka.  
Gizakiak beti bere duintasuna mantendu behar du.  
Pertsonen tentsioa, edertasuna bilatu, ongia praktikatuz eta balore ez materialak bilatu ditzakete.
2. Izaki bizidunak zaindu behar dituzu; ulertu eta maitatu behar dituzu.  
Naturak ematen dituen baliabideak erabili ditzakezu, baina kalterik ez egiten ahalegindu.

Pertsonen eskubideak beti babestuak izango dira.  
Denon ongia bultza ezazu.

3. Berdintasunez eta justiziaz jokatuko duten eta beti bakean aurrera joko duten pertsonen taldeak sortzen lagundu.  
Pertsonen komunitateek, giza eskubideen betetzea ziurtatu behar dute.  
Denok hazi eta aurrera jo ahal izan behar dugu.  
Denok, duintasunez bizitzeko beharrezkoa dena eduki ahal behar dugu.  
Denok bizitza eta naturaren arteko beharrezko orekaren arduradunak izan behar dugu.
4. Denok, orain eta etorkizuneko meneetan, Lurraren fruitu eta edertasunaz gozatu dezaten lagundu ezazu.  
Jokatzeo askatasuna daukagu, baina beti kontutan eduki behar ditugu etorkizuneko belaunaldien beharrak.  
Gure ondorengoei, Lurrean bizitzaren aurrerapenera eramaten duen guztia transmititu behar diegu.

## **DENAK LURRAREKIN HARREMANA DU**

5. Babestu, eta beharrezkoa bada berrezarri munduko izakiek duten ordena.  
Natura guztian adierazten den bizitzan arreta berezia jar ezazu.  
Hazi egin behar da, baina natura kaltetuko ez duen moduan.  
Zenbait itsaso eta lur guztiz babestu behar dira.  
Desagertzeko arriskuan dauden espezieak defendatuak izan behar dute.  
Produktuen aldaketa genetikoak kontrolatu behar da.  
Berritu daitezkeen baliabideak moderazioz kontsumitu behar ditugu: ura, zorua, zuhaitzak, arrainak, ...  
Berritu ezin daitezkeen baliabideak zaindu behar dira: petrolioa, beste minerale batzuk, ...
6. Bizi zaren ingurumenari ez egin kalterik. Dударik edukitzean, kontuz jardun ezazu.  
Zientzilarien arrazoiak osagabeak direnean, kontuz jokatu behar dugu ingurumenari kalterik ez egiteko.  
Jarduera berriek naturari okerrik egingo ez diotela bermatzeko beharrezkoak diren ikerketak egin behar dira.  
Orain naturan egiten denaren etorkizuneko ondorioak aurrakusi behar dira.  
Planetako edozein aldetan kutsadura ekidin behar da.  
Substantzia erradioaktiboak, arriskutsuak edo toxikoak pilatzea ezin daiteke baimendu.  
Igurumenari kalte egiten dioten jarduera militarrek ekidin behar dira.
7. Zuk ekoiztu edo kontsumitzen duzun guztiak naturaren ordena, giza eskubideak eta denon ongizatea errespetatu behar ditu.  
Ekoizten eta kontsumitzen ditugun materialak birziklatu, berrerabili eta murriztea beharrezkoa da.  
Uzten ditugun ondakinek ez dute natura kaltetu behar.  
Energia agudeziarekin erabili behar dugu eta beti berritu daitezkeen energia nahiago ukan behar dugu: eguzkia, haizea, ura, ...  
Makinek beti ingurumena errespetatuko dute.  
Natura eta jendea kaltetuko ez duten produktuak kontsumitu behar ditugu.  
Denok osasunera sarbidea eduki eta bere arduradunak izan behar dugu.  
Lurra bezalako espazio mugatu batetan ondo bizitzen jakin behar dugu.
8. Izaki bizidunen harremanak, beraien artean eta bizi diren gunean, ezagutzen interesa jar ezazu. Zure ezagutzak partekatu.  
Mundu guztiko zientzilariak lurraren mantenuan lagundu behar dute.  
Teknika eta asmakuntzek Lurraren sostenguan lagunduko dute.

Munduko kultura eta sinesmenek ingurumenaren babesean laguntzen dute.  
Gizakien osasunerako eta ingurumenaren babeserako oinarritzkoa denari buruz informazioa eduki behar dugu.

## **JUSTIZIA DENONTZAT**

9. Munduko pobrezia ezabatzeraz lagun ezazu. Ez dago pobreak egotea justifikatzen duen arrazoirik.  
Pertsona guztiak ur edangarrira, aire garbira, behar diren elikagaietara, kutsatu gabeko lurra, etxebizitza duin batera eta saneamendu ziur baterako eskubidea eduki behar dute.  
Denek hezkuntza eta bizitza duin batez gozatzeko beharrezkoak diren baliabideak jaso behar dituzte.  
Bakarrik mantendu ezin duten pertsonak modu egokian jaso behar dute arreta.  
Pertsona baztertuak edo gehien behar dutenak, laguntza gehien jasoko dutenak izango dira.
10. Mundu guztiak modu bidezko eta iraunkor batetan aurrera jo eta hazi dadin lagundu ezazu. Lankidetzat talde, enpresa edo pertsonen elkarte guztietan ere emango da.  
Aberastasuna bidezko moduan banatu beharko da, zure herrialdean eta mundu osoan.  
Herrialde pobreenak zor ekonomikoaz askatuak izan behar dute eta garatzeko baliabideak lortu behar dituzte.  
Munduko komertzioak naturaren ordena eta langileen beharrak errespetatu behar ditu.  
Nazioarteko enpresek eta mundu mailako erakunde ekonomikoek argi eta garbi jokatu behar dute guztion onerako.
11. Gizon eta emakumeek modu bidezko eta iraunkorrean hazteko eskubide berbera dutela baieztatzen du. Batak eta besteak hezkuntza jasoko dute, osasuna babestuta edukiko dute eta lan berdinean soldata bera irabaziko dute.  
Emakumearen eskubideak ziurtatu behar dira; sexuaren araberazko indarkeriarekin bukatu behar da.  
Emakumeek bizitzako alderdi guztietan modu aktiboago batetan parte hartu behar dute.  
Familiak indartuak izango dira eta bere kide guztiak babestuak izango dira.
12. Inolako salbuespenik gabe, denok osasuna eta balore izpiritualak babesturik edukiko ditugun ingurugiro duin batetan bizitzeko eskubidea dugula defenditzen du.  
Hau esplotazio handiena jasaten duen pertsonen dagokio: gutxiengo etnikoak eta herri indigenak.  
Etnia, kolore, sexu, sexu joera, erlijio, hizkuntza, nazio, egoera soziala, ... arrazoen ondorioz diskriminaziorik ez du egon behar.  
Herrialde guztiak sinesmen, lurra, baliabideak eta bizitzeko berezko moduak edukitzeko eskubidea dute.  
Gazteek bizitzeko modu berri sostengarriak sortzeko gai izan behar dute.  
Garrantzi kultural edo izpirituala duten munduko tokiak babestuak izan behar dute.

## **HERRIAK ERABAKITZEN DU; INDARKERIARI EZ; BAI BAKEARI.**

13. Zure esku dagoenean, denok beste pertsona batzuekin elkarbizitza antolatu, erabaki eta zuzentzeko parte hartu dezaten lagundu ezazu. Arauak bidezkoak izango dira eta zailtasunen aurrean arbitro bat egongo da.  
Denok ingurumenari eta garapenak eragiten dion moduari buruz informazioa jasotzeko eskubidea dugu.  
Denok herri, hiri, eskualde, herrialde, estatu eta mundu mailan parte hartu eta erabaki ahal izatea beharrezkoa da.

Iritzi, adierazpen, batzar baketsuak antolatzeke, elkartzeko eta adostasun eza adierazteko askatasunak praktikan jarri behar dira.

Beharrezkoa da naturari kalte edo mehatxu egiten zaionean justizia auzitegiek jokatzeko.

Korruptzioa alde guztietan ezabatu behar da.

Tokiko komunitateek: hiriek, auzoek edo herriek, bere ingurunea zaindu behar dute.

14. Modu bidezko eta egonkor batetan bizitzen laguntzen duena ikasi eta praktikatu.  
Denok, batez ere haur eta gazteek, hezkuntzarako sarbidea eduki behar dute, horrela garapen sostengarriari laguntzeko.  
Arteak, zientziak eta ikasketek garapenerako hezi behar dute.  
Telebista, irratia, prentsa eta beste komunikabide batzuk natura eta gizartearen beharrak ezagutzera lagunduko dituzte.  
Heziketa moralak eta izpiritualak bizimoduan modu erabakiorrean eragiten du.
15. Izaki bizidun guztiak errespetuz eta kontsiderazioz tratatu behar dira.  
Ezin daiteke animaliekin krudela izan; sufritu ez dezatela lortu behar da.  
Sufrimendu larregi sortzen duten arrantza edo ehiza metodoak ezabatu behar dira.  
Animalien suntsipen edo harrapaketa indiskriminatua eragoz behar da.
16. Pertsona guztiak indarkeriarik gabe, tolerantziarekin eta bakean bizi daitezela lagundu behar duzu.  
Gizakiek, elkarri ulertu eta lagundu behar diogu.  
Gatazkak aurrikusi behar ditugu eta lankidetzara erabili.  
Ejertzitoei bakea defendatzeko dute eta munduaren berreraikuntza lan egingo dute.  
Arma nuklearrak, biologikoak, toxikoak eta suntsipen orokorrekoak ezabatu behar ditugu.  
Kanpoko espazioaren erabilpena, ingurumena eta bakea defendatzeko baliogarria izango da.  
Bakeak, gizaki bakoitzak bere burua eta besteak aurkitu ditzen balio du: pertsonak, kulturak, bizimoduak, Lurra eta guk osatzen dugun Osotasuna.

## **JARRAITU BEHAR DUGUN BIDEA**

Gizakiak, bata bestearen menpe gaude eta bizi garen mundua hobetzeko eta kontserbatzeko egin beharra daukagu. Horregatik, Lurraren Gutuna betetzean zehazten den bidea jarraitu behar dugu.

Hemen eta alde guztietan denoi modu bidezko eta orekatuan hazten utziko digun bizimodu berri bat imajinatu eta bilatu behar da.

Dauden kultura kontaezinek egia buruzko bilaketa eta elkarrizketa konstantean laguntzen dituzte.

Dudarik gabe, zailtasun garrantzitsuak helduko zaizkigu; ahaleginarekin gaintu ahal izango ditugu. Askatasunarekin eta denon ongizatearentzat irtenbideak aurkituko ditugu. Denok zerbait egin dezakegu. Denak lagun gaitzake: arteak, zientziak, erlijioak, hezkuntzak, komunikabideak, enpresek, erakundeak, gobernuak, ... Aliantzak indarra egingo du.

Gizadiaren etxe izango den Lurra eraikitzeke, munduko herrialdeek beraien batasuna berriki behar dute. Lurraren Gutuna, Nazio Batuen lege unibertsal berria, munduko estatu eta herri guztiegatik onartua, errespetatua eta praktikara eramana izan behar du. Ingurumena babestua izango da eta herrialdeak duintasunez haziko dira.

Gure garaia horrela gogoratua izango da: “Izate modu berri batetara iratzarri ziren”, “modu bidezko eta etengabe batetan haztea erabaki zuten”, “justizia eta bakearen alde ahalegindu ziren”, “bizitzeko atsegina alaitasunez ospatu zuten”.